

## KALE INKESTA JENDAURREAN

Deskribapena: Usurbilgo kaleko imajinak ageri dira jendearekin.

Kike: “Usurbildarrok! Usurbilea etorri gara eta ausartuko al zarete jende aurrean hitz egiten? Ikus dezagun ausartzen zareten edo gutxienez txiste labur bat kontaktzen diguzuen! Ea ba!”

Deskribapena: Kike jendeari galdezka agertzen da oholtza txiki bat ondoan duela.

Kike: “Animatuko zinatekete, beida, horrea, horrea igo eta diskurtso bat ematera? Ea jendea animatzen dan hitz egitera edo?”

Lehenengo bikotea: “Buf, ez, oso zaila, oso zaila!”

Kike: “Ez zeate animatzen?”

Lehenengo bikotea: “Ez”

Kike: “Diskursotxo bat bota behar dezu, bai? Animatuko zea?”

Lehenengo emakumezkoa: “Ez”

Bigarren emakumezkoa: “Ez, ezta pentsatuta ere.”

Kike: “Baina, zeba?”

Bigarren emakumezkoa: “Ba, lotsa ematen didalako!”

Lehenengo gizonezkoa: “Ba ni naiz, un novato de, ez! Gainera lotsatu iten naiz.”

Hirugarren emakumezkoa: “Ez zaitelako jende aurrean hitz egitea gustatzen.”

Bigarren bikotea: “Lotsa ematen digu, lotsa ematen digu.”

Kike: “Lotsa? Zergatik?”

Bigarren bikotea: “Ba panikua, panikua!”

Bigarren gizonezkoa: “Ez nago ni prestatuta horretarako, ez, ez, ez!”

Laugarren emakumezkoa: “Nahiko lotsatia naiz horretarako.”

Bosgarren emakumezkoa: “Ba, lotsa ematen dit, ez dakit ze esan ta...ez, ez”

Kike: “Ta zergatik ematen dizu lotsa?”

Bosgarren emakumezkoa: “Jo ba, azkenean jende guztia beida, o, ni de jendian aurrian, kamara, ez, ez, ezin det.”

Kike: “Eta txiste labur bat?”

Bosgarren emakumezkoa: “Ez, ez, txistiak oso txarra naiz, ez dakit txistetan!”

Kike: “Eta txiste labur bat kontatuko?”

Bigarren emakumezkoa: “Txiste bat? Ez dakit txisterik!”

Kike: “Eta txiste labur bat kontatzera ausartuko zinake?”

Hirugarren emakumezkoa: “Ez, gutxio.”

Kike: “Ez? Ta zeatik ez?”

Lehenengo emakumezkoa: “Ez, lotsatia naizelako.”

Laugarren emakumezkoa: “Ez daukat nik umore gehigirik ez horretarako”

Bigarren bikotea: “Gainera ez dakigu txisterik”

Kike: “Ezta hori ere, e?”

Bigarren bikotea: “Ez, ez gea hizketan iaiuak.”

Deskribapena: Kike gizona batekin oholtzara nola igo adierazten azaltzen da orain eta gizona oholtza gainean hizketan ondoren.

Kike: “Benga, jarri, jarri ba! Hola, e, diskurtso bat, potente bat, e?”

Hirugarren gizona: “Ez zaitezte bildurtu eta hitz egin lasai!”

Deskribapena: Beste gizona bat oholtza gainean agertzen da.

Laugarren gizona: “Bueno, egun on jaun-andreok! Hemen nago zuen aurrean, e, adierazteko ez dala beldurrik euki behar, ez jendean aurrean, ez inoren aurrean edozer gauzetaz hitz egiteko eta esateko! Aske eta libre izan behar degu gauzak esateko jendean aurrean!”

Deskribapena: Kike txaloka hasten da eta ondoren eskua luzatzen dio gizona honi.

Kike: “Oso ondo! Izena?”

Laugarren gizona: “Asier!”

Kike: “Asier, zorionak!”

Deskribapena: Kike oholtzara igo den azken gizona alboan agertzen da.

Kike: “Holako jendia behar degu! Animatzen dana! Ta! Ta jende aurrian, pues, lasai hitz egin!”